



Guraso agurgarriok:

Oraingoz jakingo duzue, Itsuki Irratiak antolatzen duen “HEGALUZE SARIA” geure ikastolari emango zaio. Dakizue, sari honek “*urteko ekimen puntual bat edo jarraipen profesional bat saritzen du, Bermeoko herriaren izena zabaldu eta goratu duenari edo herriaren alde lan egin duen pertsona edo taldeari emanez*”.

Aurton, eta Ikastolaren 50. Urteurrena ospatzen dugunez, epaimahaikideek, urteetan gure herriarentzat egindako lana saritu dute, eta zehazki, beraien hitzak erabiliz, “*Bermeoko itsas eta arrantza ondarea balioan jartzeagatik eta horren transmisioan belaunaldien artean bermatzeagatik*”.

Lan hau ez da bakarkaoena, Ikastola osatzen dugun guztiok sentitu behar gara sarituak.

Beraz, eta honen bitartez, “Hegaluze Saria” hartzeko egingo den ekitaldian zuek gurekin bat egitea gustatuko litzaiguke.

**NOIZ: Maiatzaren 19an, barikuan, eguerdiko 12,30etan**

**NON: Nestor Basterretxea aretoan**

**SAIOAREN IRAUPENA: 20 minutu inguru.**

Harreraonez agurtzen zaituztegu

Ikastolan, 2017ko maiatzaren 18an

**ARTEZKARITZA KONTSEILUA**